

Les vêpres siciliennes (Bezpera siziliarrak), Verdi.
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: John Mauceri. Bilboko Opera Korua. Zuzendaria: Boris Dujin. Bakarlarriak: Lianna Haroutounian, Gregory Kunde, Vladimir Stoyanov eta Dmitry Ulyanov. Eszena Zuzendaria: Davide Livermore.

Gaur egungo egoera eta Verdiren ikuspegia

GEZURRA BADIRUDI ERE, XIX. mendearen bukaeran egindako obra batean, erdi aroan kokatua gainera, ondo irudikatu daiteke gaur egungo egoera politikoa, ez bereziki hemengoa, mundu osokoa baizik.

“*Les vêpres siciliennes*” izeneko operan, Verdik, erdi aroko *Cronica di lu rebellamentu di Sicilia contra re Carlu* libretoan oinarriturik, bere garaiko politika giroa azaldu nahi izan zuen. Baina bitxienda, obra bera hartuta, eta honi bira txiki bat emanda, Davide Livermore eszena zuzendariak egin duen bezala, gure garaiko politikaren ezaugarriak antzeman ditzakegula: ideala, mendekua, estrategia eta boterearen kontraesanak. Jatorriko obran Italiaren etsaiak frantsesak ziren, eta, Livermoreren ustez, herritarren etsaiak gaur egun telebista, politikariak, armada eta beste dira. Ideia nahasketa hori ondo irudikatuta gelditu zen OLBE, Torinoko Teatro Regio eta Lisboako São Calos Antzoki Nazionalaren arteko produkzio honetan.

Verdiren musika aitzakia izan zen saio aldarrikatzailea eskaintzeko. Hirugarren ekitaldian, ordu erdi luze bat igaro zen bideo proiektzioen artean: M 15eko suminduak, Europako agintariak... Bukaeran txaloak eta batez ere txistualdiak izan ziren. Bakoitzak egingo du horren interpretazio partikularra.

Baina goazen alde musikala aztertzeraz. Ona, oso ona izan zen interpretazioa. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, John Mauceri-ren batutapean, oso ondo portatu zen. Uneoro malgua, freskoa eta oso “verditarra”, laguntza orkestral aproposa egin zuen. Eta, zeresanik ez, bakarlarri mundialak izan genituen. Gregory Kunde tenoreak Henri dotorea egin zuen. Ahots argitsua du eta ondo mugitzen zen eszenatokian. Vladimir Stoyanov baritonoa ere ondo aritu zen Guy de Montfort pertsonaia egite-rakoan. Baina benetako sorpresa denontzat Lianna Haroutounian soprano armeniarra izan zen. Lehenengo aldiz entzun dugu abeslari hau Bilbon, eta



Goian, Gregory Kunde tenorea. Ezkerrean, Lianna Haroutounian sopranoa.

espero dugu azkena ez izatea, hain perfektua izan baitzen Hélène pertsonaiaren interpretazioa.

Aparteko musikaltasuna du soprano honek eta tinbre zoragarria. Izugarritzko txalokadak jaso zituen. Oso inpresio ona eman zuen Dmitry Ulyanov baxu errusiarrak ere. Jean Procida komentzigarria egin zuen, eta kalitatezko ahotsa luzitu. Bilboko Opera Korua, Boris Dujinen zuzendaritzapean, oso egoki uneoro. Saio disfrutagarria, alde guztietatik begiratuta. ■

Montserrat
Auzmendi

